

MUGI KORDAI NKETA

Saltokietan mugikorrak ordaintzea

Hemendik aurrera, LABORAL Kutxa Pay apparekin mugikorra terminalera hurbilduz ordaindu ahal izango duzu saltokietan, terminalak contactless teknologia badu. Erosotasun osoz, txartela aurkeztu gabe, aparteko kosturik gabe eta segurtasun berarekin.

NOLA ERABILI SALTOKIETAN?

- Desblokeatu mugikorra. Gogoan izan mugikorraren NFC aukerak aktibaturik egon behar duela.
- Ordainketa egiteko unean eta saltokiko terminalak eskatzen duenean, gerturatu mugikorra terminalera (STra) y eutsi hor txistu-hots bat egin arte edo eragiketa berretsi arte.
- Eragiketa 20 eurotik gorakoa bada, lotutako txartelaren PIN zenbakia STan sartzeko eskatuko dizute.
- Eragiketa amaitutakoan, berrespen-mezu bat jasoko duzu, berorren xehetasunekin.

MUGIKORRA GALDU, LAPURTU EDO ALDATUZ GERO

- Mugikorra galtzen bazaizu edo lapurtzen badizute, blokeatu lotutako txartela, eta, hori ordezkatzeko duena jasotzen duzunean, lotu Mugikor bidezko ordainketaren zerbitzura.
- Mugikorra aldatzen baduzu, aurrena deskargatu Laboral Kutxa Pay appa. Zure Online Bankaren erabiltzailearekin eta pasahitzarekin LK-Payn sartu ostean, aukeratu Mugikor bidezko ordainketa. Orduan, aukeratu zerbitzu horretara lotuko duzun txartela.

APPAREN KONFIGURAZIOA ETA ALDERDI TEKNIKOAK

- 4.4 bertsioiko edo geroagoko sistema eragilea eta NFC teknologia duten Android telefonoetarako garatu da mugikor bidezko ordainketa. Baldintza horiek bete ezean, stickerra erabil dezakezu mugikorrarekin ordaintzeko.
- Eragiketak egiteko STa contactless edo kontakturik gabeko terminala izan beharko da.
- Mugikorrarekin ordaintzeko ez da Interneterako konexiorik behar, STa eta mugikorra NFC (Near Field Communication) sistemaren bidez jartzen baitira harremanetan. Bestalde, ez dago LK-Pay appa ireki beharrik ere
- Interneterako konexioa LK-Pay appa deskargatzeko edo eguneratzeko soilik beharko da.
- Mugikor bidezko ordaintzeen kopurua mugatua da, segurtasun-arrazoiak direla medio, eta eguneratu egin ahal izango da LK-Pay aplikazioan. Kontagailua automatikoki eguneratuko da. Ez dago geratzen zaigun eragiketa kopuruaz arduratu beharrik, jakinarazpen bat jasoko baitugu agortzear dagoenean.

NOLA ALDATU MUGIKOR BIDEZKO ORDAINKETARI LOTUTAKO TXARTELA?

Mugikor bidez ordaintzeko, LABORAL Kutxaren txartel baten titularra izan beharra dago, eta txartela mugikor bidezko ordainketa-zerbitzura lotu behar da. Apparen konfigurazioan lotuko da txartela zerbitzura, eta aldatu egin daiteke, behar den guztietan. Lotutako txartelaren baldintzetan egingo dira ordainketak (kreditu edo zordunketa bidez) eta zerbitzu guztiei eutsiko zaie —Travel puntuak, doako aseguruak...—. Ordaintzeko ez dago appean sartu beharrik. Behar den guztietan aldatu ahal izango da Mugikor bidez ordaintzeko zerbitzuari lotutako txartela. Horretarako, nahikoa da LK-Pay appera sartu, Mugikor bidezko ordainketa hautatu eta txartela aldatzea.

